

KARMEL

IX^o GN. URTEA. 1959

IRAILLA-URRILIA

(LARREA - ZORNOTZA)

JAIOTZ EDERRA

Jaunak, betidanik, ondo be ondo ezagutzen ditu giza-semeen barru ta oncin egiñak, on eta gaizto; ba-ekian, esate baterako, zorion ta doaiz jantzitako Adan'ek, Berak ipiñi eutsan agindua ausiko ebana; ba-ekian, here Seme bakarrak, gizonarengana-ko maitasunez, aragia artuko ebana, gizon ori zeruratzeko. Eta une atantxetik eukan Maria be bere adimenean, orduantxetik maite eban sortzeko ziran beste izaki guztiak baiño geiago.

Maria, beraz, Jaunaren burubideetan zan, oraindik ezer eban baiño len; betidanik Jaunaren asmoetan zan, lurra lertu baiño len; zeruak edatzean, lezak arau jakiñez eta ago-ezpaneaz inguratzean, lur gaiñean eguratsa mamintzean eta iturriak neurritz ezartzean, itxasoari mugak eta lurrari oiñarria emotean, Maria Jaungoikoaren adimenean eta biotzean egoan.

Jaunak egin zeikean bai zeru ederragoa, bai ta lur hikiñagoa be; baiña Maria baiño sorkari eder-obarik ezin erne-azo.

Jainko-eskutik urteniko izaki guztietan Maria dogu eder bikain zoragarriena.

Gau batez Mardokai'k, atzerrian egoalarik, ames ezkututsu bat izan eban. Lo-aldiko illunpetik, iturritxo bat eta argitxo bat ikusi ebazan sortu ta jagiten; gero, bai iturria ta bai argia, andi-andi egin ziran; iturria, mundu osoa ureztatu eban ibai zabal liurtu zan; argiak, ostera, eguzki antzo, lurbira danera bialtzen zitun bere izpi ta erraiñu ditzikorrak.

Ikuskari onek ba-dau Maria'gaz zer-ikusi naiko. A jaio zanean, etzan iñor be konturatu kuma onen inguruan mundu osoaren geroa dardaratzten zana. Gaur, orduko ume-txoa, arima guztien egarria kentzen dauana dogu; siñiste-okar eta giza-adimen lañoak oro uxatzen dabezan eguzki bero dirdiratsua be hera dogu. Gaur ez da munduan zokondorik Maria'ren altara ta maite erakutsi gabekorik; nai Europa'n, nai Asia'n, nai Afrika'n, nai Amerika'n, erri guztiak diñotse oiuka: «Doatsua zu, Maria!» Doatsua diñotzu, Maria, Euskalerrriak be. Zaitex bere Ama goxo ta maitekor.